



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIRIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Magdalako Maria hilobira joan zen goizean goiz”

2024ko martxoaren 31  
Pazko Igandea (B)

### Joan 20, 1-9

Asteko lehen egunean Magdalako Maria hilobira joan zen goizean goiz, artean ilun zegoela, eta harrira hilobitik kendua ikusi zuen. Orduan, Simon Pedrorengana eta Jesusek maite zuen beste ikasleagana itzuli zen lasterka, eta esan zien: “Eraman egin dute Jauna hilobitik, eta ez dakigu non ipini duten”.

Irten ziren, orduan, Pedro eta beste ikaslea, eta hilobirantz jo zuten. Biak batera zihoazen korrika, baina beste ikaslea Pedro baino arinago zihoan, eta lehenago iritsi zen hilobira. Barrura begiratzeko makurturik, oihal-zerrendak lurtean zeudela ikusi zuen, baina ez zen sartu. Irtsi zen haren atzetik Simon Pedro, eta sartu zen hilobira. Oihal-zerrendak lurtean ikusi zituen, bai eta Jesusen burua biltzen egoniko zapia ere; baina hau ez zegoen oihal-zerrendekin batera jarria, beste toki batean aparte bildua baizik. Orduan, sartu zen beste ikaslea ere, hilobira lehenengo iritsi zena. Ikusi eta sinetsi egin zuen. Izan ere, ordura arte ez baitzuten ikasleek ulertu Liburu Santuak dioena, Jesusek hilen artetik piztu behar zuela, alegia.

Beharrezkoa jakon Kristori nekeok igarotea ta olan bere aintzan sartzea!

## ZOAZTE GALILEARA. HAN IKUSIKO DUZUE

Jose Antonio Pagola

Pazko Gaubeilan irakurri ohi den ebanjelio-pasarteak garrantzi aparta du. Gurutziltzatu dutena Jainkoak piztu duelako albiste handia dakarkigu; horrez gainera, ordea, hura ikusteko eta harekin topo egiteko zein bide egin adierazten digu.

Jesus ahantzi ezin duten hiru emakume miresgarriz mintzo zaigu Markos: Maria Magdalena, Santiagoren Maria eta Salome. Bihotzean asmo zoro hau sortu zaie, maitasun grinatsutik bakarrik sor daitekeena: «*usain gozoko ukenduak erostea, Jesusen gorpua gantzutzeko*».

Eta gauza harrigarria: hilobira iristean, irekia da. Gehiago hurbiltzean, berriz, «*gazte bat ikusi dute zuriz jantzia*», beren harriduratik lasaiarazi eta inoiz pentsatuko ez zutena agertu diena.

«*Nazareteko Jesusen, gurutziltzatuaren, bila zabiltzate?*» Oker zabiltzate hildakoen artean haren bila. «*Ez da hemen*». Jesus ez da beste hildako bat gehiago. Ez da zertan negar egin hartaz, hari omenaldia egiteko. «*Piztu da*». Bizirik da betiko. Ezin aurkitu izango dute sekula hildakoen artean, izandakoen, zendutakoen artean.

Baina, hilobian ez bada, non aurkitu? Non egin genezake topo harekin? Jesusek berak esana ziena gogorarazi die gazteak emakumeei: «*Zuen aurretik doa Galileara. Han ikusiko duzue*». Berpiztua «*ikusí*» ahal izateko, Galileara itzuli beharra dute. Zergatik? Zertarako?

Berpiztua ezin ikusi ahal da, haren ibilbidea bera egin gabe. Hura gure artean bizi-bizirik sentitu ahal izateko, abiapuntura itzuli behar da, eta Jesus gurutzera eta piztuerara eramane duen bizitzaren esperientzia egin behar da. Horrela egin ezean, doktrina txundigarria izanen da guretzat «*Piztuera*», dogma sakratua izanen da, baina Jesus ez dugu sumatuko geure artean bizirik.

Galilea izan da Jesusen jardueraren eszenatoki nagusia. Han ikusi dute ikasleek jendea sendatzen, barkatzen, askatzen, onartzen, guztiengan esperantza berria iratzartzen. Gauza bera egin behar dugu orain haren jarraitzaileok. Ez gaude bakarrik. Aurretik doakigu berpiztua. Ikusiko dugu haren urratsei jarraitzen badiegu. «*Berpiztua*» sumatzeko gauzarik erabakitzaileena, ez da teologia ikastea, ezta liturgi ospakizuna ere, baizik Jesusi fedez jarraitzea.